



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

MUSEO ETA BILDUMEN

ESTADÍSTIKA-TXOSTENA

2008-2018

EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOKO

MUSEO ETA BILDUMEN

ESTADISTIKA-TXOSTENA 2008-2018



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a, 2019ko urria

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Lege-gordailua: VI 732-2019

Aurkezpena	5	6. JARDUERAK	34
Metodologia	7	6.1. Museo eta bildumetan egindako aldi baterako erakusketak, tipologiaren arabera	36
1. TIPOLOGIA	9	6.2. Museo eta bildumetan egindako hezkuntza-jarduerak publikoaren arabera	38
1.1. Museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera	10	6.3. Museo eta bildumen argitalpenak eta argitalpen motak	40
1.2. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera	11	7. LANGILEAK	42
1.3. Museoen eta bildumen azalera erabilgarria: 2008-2018	13	7.1. Museo eta bildumak langile-kopuruaren arabera	43
2. TITULARTASUNA ETA KUDEAKETA MOTA	14	7.2. Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera	44
2.1. Museoen eta bildumen titulartasuna eta kudeaketa mota: 2008-2018	14	7.3. Museo eta bildumei atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera	45
3. ZERBITZU ETA BALIABIDEAK	16	7.4. Museo eta bildumetako langileen banaketa, sexuaren arabera	47
4. IREKIERA ETA TARIFAK	20	8. FINANTZIAZIO-ITURRIAK	48
4.1. Museoak eta bildumak jendaurreko irekitze modalitatearen arabera: iraunkorra, sasoikoa eta behin-behinean itxita	21	8.1. Museoen eta bildumen finantziazio-iturriak	50
4.2. Museoak eta bildumak, urtean irekitako egun kopuruaren arabera	22	8.2. Finantziazio publikoa duten museo eta bildumak dirua ematen duen erakundearen arabera	51
4.3. Museoen eta bildumen sarrera mota	24	9. FUNTSAK	52
5. BISITARIAK	26	Datu adierazleak	54
5.1. Bisitari kopurua: orokorrean, lurralde historikoaren arabera eta museo-tipologiaren arabera	28	2018ko estatistikan parte hartu zuten museoak eta bildumak	56
5.2. Atzerriko bisitariak izan dituzten Euskadiko museoak eta bildu- mak, lurralde historikoaren arabera eta tipologiaren arabera	32		

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Museoen Zentroak –Kultura eta Hizkuntza Politika Saila–, 2018ko estatistika-txostena landu ondoren, azken hamar urteetako datuak aztertzeko erabakia hartu du.

Iñaki Diaz Balerdik *Archipiélagos imaginarios. Museos de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (2010) liburuan Euskal Autonomi Erkidegoko museo eta bilduma museografikoei buruzko hausnarketa sakona egin zuen. Artearen Historian doktoreak aipatzen du, eta ondorengo taulan islatzen den bezala arrazoi osoz, XX. mendeko lehenengo bi herenetan museo oso gutxi ireki zirela Euskadin, baina azken hamarkadetan horien kopurua biderkatu egin dela. Izan ere, 2001etik 2018ra XX. mendeko bigarren erdian baino museo gehiago ireki ziren.

	Erakundea sortu	Museoa jendearentzat ireki
Antzinakoak	3	0
1900-1950	13	11
1951-2000	49	43
2001-2018	34	46

Horrela, interesgarria iruditzen zaigu azken urteetako bilakaera aztertzea, eta Euskadiko museo eta bildumen bilakaeraren analisia egitea. Horretarako, kultur azpiegitura horiek EMSIMEn (<https://apps.euskadi.eus/em-sime/euskadiko-museoak/>), Euskadiko Museoen Sistema Informatikoan, bi urtean behin betetzen dituzten datuak erabili¹, eta emaitzak alderatu ditugu. Hala ere, kontuan izan behar da urtetik urtera estatistiketan parte hartu duten museo eta bildumen kopurua aldatu egin dela, eta beraz, azterketa-oinarria desberdina izan daitekeela.

¹ Informazioa jasotzeko galdetegia Espainiako Kultura Ministerioak ezartzen du bi urtez behingo estatistikak osatzeko.

Dokumentu honetan, 2008, 2010, 2012, 2014, 2016 eta 2018 urteetako estatistika-datuak alderatu ondoren, emaitza nagusiak ageri dira 9 atal edo adierazletan sailkatuta:

1. Tipologia
2. Titulartasuna eta kudeaketa mota
3. Zerbitzu eta baliabide-ekipamenduak
4. Irekiera eta tarifak
5. Bisitariak
6. Aldi baterako erakusketak, hezkuntza-jarduerak eta argitalpenak
7. Langileak
8. Finantziario-iturriak
9. Funtzak

Hori guztia esanda, azken 10 urteetako azterketa honen asmoa da museo-erakundeen irudi eta irakurketa orokor bat ematea, herritarrei sektoreko alderdi nagusien eboluzioa aurkeztea, eta kultur erakunde eta kudeatzaile publiko zein pribatuei hausnarketarako beste tresna bat eskaintzea.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Euskadiko museoen eta bildumen arduradunei eta talde teknikoei, txosten hau egiteko eskainitako informazioagatik.

Ez da ohikoa erakunde ofizialen txostenetan bertako egileen izenak agertzea. Edozelan ere, ezin dut utzi azpimarratu gabe eta eskertu gabe Ainhoa Bernabek egindako ahalegina honako azterketa hau gauza zedin.

Mikel Aizpuru Murua

Kultura Ondarearen zuzendaria

Parte-hartzea

Estatistika honetan hiru lurralde historikoetako museo eta bilduma mu-seografikoek hartu dute parte. Informazioa Eusko Jaurlaritzako EMSIME museo-en kudeaketarako sistema informatikotik hartu da, bertan jasota baitaude bi urtean behin museo-erakundeek betetzen dituzten datuak.

Aipatutako aplikazioan jardun duten museo edo bilduma kopurua alda-tzen joan da, eta ondorioz, bi urtez behingo parte-hartzea aldatu egin da.

Urtea	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Emsimen (b.a.) ²	67	64	65	66	63	63
Parte-hartze (b.a.)	58	63	65	62	61	61
Parte-hartze (%)	%87	%98	%100	%94	%97	%97

Garatu diren edukiak

Bi urtean behingo estatistiketako galde-sortako item guztietatik, adie-razgarrien iruditu zaizkigunak bederatzi arlo edo adierazletan batu ditu-gu, analisiaren emaitza ahalik eta osoena izan dadin, baina, era berean, irakurtzeko erraza.

1. **Tipologia:** atal honetan Euskadiko museo-erakunde motak eta lurralde-historikoa hartu ditugu kontuan, besteak beste.

² Balio absolutuak.

2. **Titulartasuna eta kudeaketa:** azpiegituren titulartasun eta ku-deaketa mota aztertu dugu.
3. **Zerbitzu eta baliabideak:** museo eta bildumek eskaintzen dituz-ten hainbat zerbitzu eta baliabide jaso ditugu, esate baterako, iris-garritasuna, herritarrentzako zerbitzuak, webgunea, etab.
4. **Irekiera eta tarifak:** jendaurreko irekitze modalitatea, irekitako egun kopurua, sarrera motak eta tarifak izan ditugu aztergai.
5. **Bisitariak:** bisitari-kopurua orokorrean eta atzerriko bisitariak jaso ditugu parte honetan, betiere museo eta bildumen tipologia-ren eta lurralde historikoaren arabera aztertuz.
6. **Jarduerak:** aintzat hartu ditugu egindako aldi baterako erakuske-tak, hezkuntza-jarduerak eta argitalpenak.
7. **Langileak:** langile kopuru orokorra, generoa, lanaldia, lan-harre-mana, etab. analizatu ditugu.
8. **Datu ekonomikoak:** batik bat finantzazio-iturrien bilakaera jaso dugu.
9. **Museoetako funtsak:** museo eta bildumetako funts egonkorrak aztertu ditugu.

Aipatutako azterketa-aldagai horietaz gain, aintzat hartu diren klasifika-zio-aldagaiak, batez ere, museo-en tipologia eta lurralde historikoa izan dira. Langileen kasuan kontuan eduki da sexuaren araberako banaketa ere, baina ez bisitarien atalean. Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, oro-har, genero-ikuspegia txertatzen du bere plangintza, deialdi, dirulaguntza, batzorde, kontratu eta bestelako agirietan, eta txosten honetan hizkuntza inklusiboa erabili da. Hala ere, museo eta bildumek bi urtetik behin bete

beharreko galdetegian bisitarien atalean ez dira datuak sexuaren arabera bereizten, eta, ondorioz, ezinezkoa zaigu Euskadiko museo-erakundee-tako bisitariak generoaren ikuspegitik aztertzea.

Atal gehienetan bi urtean behingo datuak analizatu dira, baina kasu gu-txi batzuetan hasierako eta bukaerako urteak bakarrik alderatzea nahikoa iruditu zaigu, izan ere, aldaketak ez baitira izan hain nabarmenak.

Aztertu diren museo eta bilduma tipologia

- **Arte Ederrak:** antzinatasunetik XIX. mendera arteko artelanak jasotzen ditu: arkitektura, eskultura, pintura, marrazkia, grabatuak, etab.
- **Arte Garaikidea:** batez ere XX. eta XXI. mendeetan egindako artelanak hartzen ditu, argazkigintza eta zinea barne.
- **Dekorazio-arteak:** objektu funtzionalak eta apaingarriekin lan egiten duten museoak, hala nola, orfebreria, bordatuak, beira, zeramika edo altzariak.
- **Museo-Etxea:** pertsonaia baten etxean kokatutako museoa.
- **Arkeologikoa:** indusketa, prospekzio eta arkeologia-aztarnategietatik datozen objektuak jasotzen ditu, eta besteak beste espezialitate hauek hartzen ditu kontuan: numismatika, gliptika eta epigrafia.
- **Tokikoa:** jatorrizko kokapenean dagoen historia-ondarea, hala nola, arkeologia-aztarnategiak, monumentuak edo lekuko industria-ondarea (interpretazio-zentro arkeologikoak onartzen ditu, betiere bilduman jatorrizko funtsak jasotzen badira).
- **Historikoa:** gertakari, aro historiko edo pertsonaia bati buruzko objektuak biltzen ditu.
- **Natur Zientziak eta Historia Unibertsala:** zientzia hauekin zerikusia duten objektuak ditu: biologia, botanika, geologia, zoologia, antropologia fisikoa, paleontologia, mineralogia, eta ekologia, beste batzuen artean.
- **Zientzia eta Teknologia:** zientzia eta teknikaren historiaren ebolutzioaren objektu esanguratsuak jasotzen ditu.
- **Etnografia eta Antropologia:** industria-aurreko garaiko kulturak edo kultura-elementuak biltzen ditu, esate baterako, folklorea, arteak, tradizioak eta ohiturak.
- **Espezializatua:** kultura-ondarearen beste maila batean jaso ezin daitezkeen gaietan sakontzen du.
- **Orokorra:** aipatutako kategoria baten baino gehiagotan identifikatu daitezkeen museo edo bilduma.
- **Besteak:** aurreko kategorietan sartu ezin diren guztiak.

1. Tipologia

TIPOLOGIA	2008				2010				2012				2014				2016				2018			
	A ³	B	G	Guz-tira	A	B	G	Guz-tira	A	B	G	Guz-tira	A	B	G	Guz-tira	A	B	G	Guz-tira	A	B	G	Guz-tira
Arkeologikoa	2		2	4	1	1	2	4	1	1	2	4	2	1	2	5	2	1	2	5	2	1	2	5
Arte Ederrak	2	4	1	7	2	3		5	2	3		5	2	4		6	2	4		6	2	4		6
Arte Garaikidea	1	1	1	3	1	1		2	1	1		2	1			1	1			1	1			1
Dekorazio-arteak		1		1		1		1		1		1	1	1		2		1		1				
Espezializatua	4	2	2	8	5	5	5	15	3	4	7	14	3	4	8	15	2	3	10	15	2	3	9	14
Etnografia eta Antropologia	2	2	5	9	2	2	3	7	2	2	4	8	2	1	2	5	1	1	3	5	1	1	3	5
Historikoa		4	1	5		5	2	7		4	2	6		4	3	7		5	2	7		3	1	4
Museo-Etxea			1	1			2	2	2		1	3			1	1			1	1			1	1
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	1		2	3	1		3	4	1		4	5	1		3	4	1	1	1	3	1	1	2	4
Orokorra			2	2			3	3		1	3	4		1	4	5		1	3	4		1	3	4
Tokikoa	2	2	1	5	2	2	2	6	1	2	2	5		2	2	4		2	2	4		3	2	5
Zientzia eta Teknologia		3	7	10		2	3	5		3	4	7		3	4	7		3	5	8		3	6	9
Bestelakoak							1	1			1	1					1			1	1	1	1	3
GUZTIRA	14	19	25	58	14	22	26	62	13	22	30	65	12	21	29	62	10	22	29	61	10	21	30	61

³ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.


1.1. Museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera

Aztertzen baditugu Euskadiko museo eta bildumak lurralde historikoaren arabera, esan dezakegu, igo egin dela horien kopurua Bizkaian eta Gipuzkoan, eta bestalde, jaitsi Araban. Zentron balio absolutuei begiratzen badiogu aldaketak agian ez dira nabarmenak, baina bai portzentajeak aztertzen baditugu. Arabak 14 museo eta bilduma zituen 2008an, 10, aldiz, 2018an; hots, %29 gutxiago (Arabako Arkeologia Museoa eta Fournier Karta Museoa BIBATen batu ziren, eta Euskal Gastronomia Museoa itxi

egin zen). Bizkaian igoera ez da oso ohargarria: 19 izatetik 21 izatera pasatu dira, %11 gehiago. Aldiz, Gipuzkoan, nahiko igo da museo kopurua: 25etik 30ra, %20 gehiago.

Badirudi ekonomia garai oparoetan hainbat museo eta bilduma txiki ireki zirela nonahi, 2008tik aurrera jasan genuen ekonomia-krisiaren eraginez mantendu ezin izan dutenak, edo erakunde publikoak diruz lagundu ezin zituztenak. Horrela bakarrik azaldu genezake Araban 3 museo desagertzea, edo EMSIMEko erroldatik kanpo geratzea. 3 horietatik 2 erakunde pribatuak ziren, eta bakarra publikoa.

1. irudia: Museoak eta bildumak lurralde historikoaren arabera. 2008-2018




Joera, berriz, ez da bera Bizkaian eta Gipuzkoan, non museo-erakundeen kopurua jaitsi beharrean igo egin da; hain zuzen ere, 2008tik 2018ra 11 museo eta bilduma ireki ziren jendearentzat, 3 Bizkaian eta 8 Gipuzkoan, eta gehienak titulartasun publikokoak. Hala ere, esan behar da bidean, errentagarriak ez zirelako edo erakunde publikoekin izandako desadostasunengatik, gutxi batzuk ere itxi zirela; agian, aipagarriena edo ezagunena da Chillida-Leku.

1.2. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera

Museoen eta bildumen tipologiari begiratzen badiogu, aldaketa nabarmenenak arte garaikideko, eta etnografia eta antropologiako azpiegiturretan, eta museo espezializatuetan eman da. Beste guztietan gorabehera txikiagoak egon dira, betiere kontuan hartuta erakundeen kopurua ez dela handia. Esate baterako, 2008 eta 2018 urteen artean arte garaikideko ti-

2. irudia: Museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak) 2008-2018




pologiak bi heren galdu dituela esan dezakegu, hiru izatetik bat izatera pasa badira ere. Jaitsiera honen arrazoa zera da: Chillida-Leku itxita egon dela 2011tik 2019ra arte, eta Guggenheim Museoa arte ederretako tipologiara aldatu zela 2014an.

Beste adibide bat aurki dezakegu etnografia eta antropologia motako zentroetan, 2008an 9 museo edo bilduma izatetik 5 izatera pasatu baitira. Kasu honetan hainbat arrazoi daude: museo batzuk erakunde bakarrean batu dira, hala nola, Brinkolako Artzantzaren Ekomuseoa eta Ogiaren Txokoa, zeinak Lenbur Lurralde Museoak barne hartu ditu; beste batzuk itxita daude (Larraulgoa eta Aire Zabaleko Museo Etnografikoa); eta

azkenik, badaude tipologiaz aldatu direnak ere, Eskoriatzako Ibarraundi Museoa eta Enkarterrietako Museoa bezala. Hala ere, aipatu behar da 10 urte horietan tipologia honetako museo berriak ere sartu direla, Sagardoetxea, esate baterako.

Museo eta bilduma espezializatuen joera kontrakoa izan da, zortzi baziren 2008an, hamalau dira 2018an. Bidean batzuk itxi edo Museoen Zentroko erroldatik irten badira ere, beste batzuk ireki dira aztertzen ari garen epe honetan: TOPIC Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa, Cristobal Balmenciaga Museoa, Mater Arrantza Untzi Museoa, Albaola, Soinuenea eta Arkauteko Ertzaintzaren Museoa, beste batzuen artean.

3. irudia: Museo eta bildumen tipologiaren eboluzioa (%) 2008-2018




1.3. Museoen eta bildumen azalera erabilgarria, 2008 eta 2018 urteak alderatuz

Aurreko atalean azaldu bezala, azalera erabilgarriak ondo adierazten du tipologiaren arabera museo eta bildumen kopuruan egon diren aldaerak. Datuak analizatzen baditugu, aldaketa nabariak arte garaikideko, arte ederretako, eta zientzia eta teknologiako tipologietan eman dira, baita gai orokorretako museotan ere. Lehenengo bi kasuetan, arrazoiak 1.2 puntuan aipatutakoarekin bat datoz: Chillida-Lekuren itxiera eta Guggen-

heim Museoa arte ederretako tipologiara pasatzea. Zientzia eta teknologiako museoak kopuruz jaitsi badira ere (bat gutxiago) azalera irabazi dute (Lenbur Museoa Lurraldean etnografia eta antropologian sartu ziren 2008an, eta zientzia eta teknikan 2018an, inguruko hainbat museo barnean hartuta, gainera).

4. irudia: Museoen azalera erabilgarria (m²) 2008 eta 2018 urteak alderatuz




2. Titulartasauna eta kudeaketa mota

2.1. Museoen eta bildumen titulartasuna eta kudeaketa mota, 2008 eta 2018 urteak alderatuz


Atal honetan ez dago aldaketa nabarmenik aztertze-ko, titulartasun mistoaren agerpena ez bada. 2008 eta 2018 urteak alderatzen baditugu, titulartasun publikoko museo eta bildumak berdintsu mantendu dira, eta erakunde guztien %59 inguru dira. 2008an ez zegoen titulartasun mistoko azpiegiturarik, eta guztien ia %5a da gaur egun mota horretakoa, hain zuzen ere, museo pribatuek galdu duten portzentaje bera. Agerian utzi behar da 3 direla titulartasun mistoa dutenak, eta horietatik 2 ez zeudela 2008an: Al-baola eta Sagardoetxea. Bilboko Itsasadarra Museoa da pribatu izatetik mistoa izatera pasatu den bakarra.

5. irudia: Museo eta bildumen titulartasuna 2008 eta 2018 urteak alderatuz



Kudeaketa motari begiratzeko badiogu antzeko zerbait gertatzen da. Irudi mistoa 2008an agertzen bada ere, zertxobait igo da portzentajea, %5etik %11,5era. Alderantziz, kudeaketa pribatua dutenak ia %8 jaitsi dira, gehien erabiltzen den kudeaketa mota izaten jarraitu arren. Eta, berri ere, publikoak dira berdintsu jarraitzen dutenak, %1eko igoerarekin.

6. irudia: **Museo eta bildumen kudeaketa mota (%) 2008 eta 2018 urteak alderatuz**



3. Zerbitzu eta ekipamendu baliabideak

Zerbitzu eta ekipamendua	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Aparkaleku publikoa	18	22	25	24	21	22
Aretoan (panelak, areto-orriak...)	45	52	60	60	59	57
Argazkigintza-laborategia	2	3	4	4	7	7
Berritze-lanetarako aretoa	15	17	21	22	18	19
Bestelako informazioa (liburuxkak...)	41	52	58	55	54	53
Bisita gidatuak	51	58	63	60	59	59
Denda/liburu-denda	37	41	47	45	45	47
Ekitaldi aretoa	24	27	31	33	36	32
Erakusketari buruzko informazioa	53	57	63	60	61	60
Euskarri elektronikoko gidak (audiogidak, keinugidak)	13	14	19	19	21	23
Ezinduentzako sarbidea	43	51	56	52	52	52
Ezintasunen bat duten pertsonentzako informazioa	15	22	28	28	31	33
Guneak besteri alokatzea	17	22	26	30	30	32
Ikertzaileen aretoa	11	20	23	25	25	27
Ikus-entzunezkoen aretoa	31	39	42	40	39	38
Ingurumen kontrola	17	21	23	22	24	25
Jarduera didaktikoetarako lekua	30	41	43	44	44	43
Kafetegia/jatetxea	10	14	17	15	12	14
Liburutegia	32	39	41	40	40	41
Ordenagailua	52	58	61	58	58	58

Egun, museo eta kultur azpiegitura asko ikono turistiko bilakatu dira, helmugen aukera areagotzen laguntzen dute, eta inguruan itzulera ekonomikoa sortzen dute. Hori dela-eta, azpiegitura eta bisitarien arteko interakzioa gero eta gehiago zaintzen da, ahalik eta esperientzia ahaztezinena eskainiz. Are gehiago, izaera formala galtzen doazen heinean, erabilera ludikoagoa dute, hau da, informalagoa eta sozialagoa. Funtsak erakusketa geletan ikusgai jartzea ez da nahikoa bisitariari esperientzia oso bat eskaintzeko, eta geroz eta ohikoagoak dira umeentzako jolas-guneak edo helduentzako solas-lekuak, kontsulta digitalerako guneak ordenagailuekin, ikus-entzunezko baliabideak, kafetegiak, etab.


Era berean, denborarekin ondare-kudeaketarako eta bisitariak artatzeko arauak edo gomendioak ere zorrotzen joan dira, eta erakundeak profesionalizatu egin dira: ekipamenduek irisgarritasun ereduak jarraitzen di-

tuzte, zerbitzu gehiago eta hobetoak eskaintzen dituzte, funtsak egoera onenetan gordetzeko beharra ikusi dute, eta instalazioak gero eta kalitate handiagoak dira.


Euskadiko museo eta bildumetako zerbitzu eta ekipamenduak analizatzen baditugu, horien %100a igo egin dira; beraz, esan dezakegu, zerbitzu eta ekipamendu-baliabideak hobetu egin direla azken 10 urteetan, horietako batzuen igoera beste batzuen bano nabariagoa den arren.

Museo eta bildumen ia %90 baino gehiagok eskaintzen dituzten zerbitzuen artean daude bisita gidatuak eta erakusketei buruzko informazioa; eta baliabideen artean, aretoetan panelak eta bestelako informazio-orriak, eta ordenagailuak. Bisita gidatuak eskaintzen dituzten museoak %15ean igo dira, eta %13an erakusketei buruzko informazioa dutenak.


7. irudia: **Bisita gidatuak (%)**




8. irudia: **Erakusketari buruzko informazioa (%)**



9. irudia: **Informazioa aretoan (%)**




10. irudia: **Ordenagailua (%)**




Azpimarratzekoa da baita ere liburuxkak bezalako baliabideak eta ezin-
duentzako sarbidea eskaintzen dituzten museo eta bilduma kopurua;
hurrenez hurren, museo eta bildumen %87ak eta %85ak. Izan ere, ezin-
duentzako sarbidea eskaintzen duten museo eta bilduma kopurua %21

igo da azken 10 urteetan. Atzetik jarraitzen diete denda edo liburu-denda
(%77) eta hezkuntza-jardueretako lekua duten azpiegiturek (%70), biek
ere igoera nabarmenarekin.


11. irudia: **Bestelako informazioa (%)**




12. irudia: **Ezinduentzako sarbidea (%)**



13. irudia: **Denda/Liburu-denda (%)**




14. irudia: **Jarduera-didaktikoe-
tarako lekua (%)**




Museoek eta bildumek gutxien eskaintzen dituzten zerbitzu eta ekipa-
mentu-baliabideen artean, agian, sektoreko profesionali edo interes-
dunei zuzenduta daudenak dira, alegia, argazkigintza-laborategia (%11)
eta berritze-lanetarako aretoa (%31), lehenak 8 puntuko igoera izan duen

arren (%3tik 2008an %11ra 2018an). Era berean, oso gutxi dira, por-
tzentajeei begira %40 igo badira ere, kafetegia edo jatetxea eta aparkale-
ku publikoa duten museoak.


15. irudia: **Argazkigintza-laborategia (%)**




16. irudia: **Berritze-lanetarako aretoa (%)**



17. irudia: **Kafetegia/Jatetxea (%)**




18. irudia: **Aparkaleku publikoa (%)**




Beste honako zerbitzu eta ekipamendu hauek, gehiengo zabal batek eskaintzen ez dituzten arren, nahiko ohikoak dira (museo eta bildumen %41ek eta %67k artean daude), eta beste guztiak bezala, urteekin zer-

txobait igo dira, ekitaldi-aretoak izan ezik. Azken horren erabilpena %7 jaitsi da azken bi urteetan.


19. irudia: **Ikus-entzunezkoen aretoa**




20. irudia: **Liburutegia (%)**



21. irudia: **Ingurumen-kontrola (%)**




22. irudia: **Ekitaldi-aretoa (%)**




Bukatzeko, kontzientziario sozial handiagoa dugulako, bisitariei esperientzia hobea eskaini nahi zaielako, zerbitzu profesionalagoak eman nahi direlako, edo zentroyen bideragarritasuna bermatu nahi delako, honako zerbitzu hauetan igoera oso nabarmena izan da, gutxi gorabehera

erakundeen erdiak bakarrik eskaintzen baditu ere: ezinduentzako informazioak %120 egin du gora; gida elektronikoen eskaintzak %77ko igoera izan du; ikertzaileentzako aretoak edukitzea ere asko hasi da, %145; eta guneak alokatzeak %88 egin du gora.


23. irudia: **Euskarri elektronikoko gidak (%)**




24. irudia: **Ezintasunen bat duten pertsonentzako informazioa (%)**



25. irudia: **Guneak besteri alokatzea (%)**



26. irudia: **Ikertzaileentzako aretoa (%)**



4. Irekiera eta tarifak

Irekitze modalitatea	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Behin-behinean itxita	1	3	1	2	2	2
Zabalik	57	60	64	60	59	59
Beste zabalitze bat	1	1	2	2	1	1
100 egunetik behera	1		1	1		
300 egunetik gora		1	1	1	1	1
Iraunkorra	55	56	60	57	56	56
100 egunetik behera		2				
101-150 egun	1					
151-200 egun	2	1		1	1	1
201-250 egun	5	6	10	7	5	7
251-300 egun	7	5	2	3	4	6
300 egunetik gora	40	42	47	42	44	40
Sasoikoa	1	3	2	1	2	2
151-200 egun		1				
201-250 egun	1	1	1	1	1	1
251-300 egun					1	1
300 egunetik gora		1	1			
GUZTIRA	58	63	65	62	61	61

⁴ Iraunkorra: Urteko hilabete guztietan zabalik dauden museo eta bildumak, asteko egunen bat ixten duten arren.

⁵ Sasoikoa: urteko hilabete guztietan zabalik ez dauden museo edo bildumak.


4.1. Museoak eta bildumak jendeurreko irekitze modalitatearen arabera: iraunkorra, sasoiak eta behin-behinean itxita

Nabarmentzekoa da 2008 eta 2018 urteen artean Museoen Zentroko erroldan egon izan diren Euskadiko museo eta bildumen ia %100a irekita mantendu direla. 2010ean izan ezik, museoen ia %5a itxita egon zela, beste urte guztietan museo bat edo bi egon dira egoera horretan, hau da, guztien %1,7 eta %3,2 artean. Erakundeak behin-behinean itxeko arrazoi nagusiak izan dira instalazioen berritze lanak (Bizkaiko Arkeologia Museoa eta Arrantzale Museoa), edo museo kudeatzaileen edo bilduma

jabearen arteko desadostasunak erakunde publikoekin (Artziniegako eta Larraulgo Etnografia Museoak).

Irekita jarraitzen dutenen artean gehienek, %89 eta %95 artean urtearen arabera, irekitze modalitate iraunkorra dute, hots, urteko hilabete guztietan daude zabalik, eta atsedean egunetan bakarrik ixten dituzte instalazioak. Ondorioz, esan dezakegu Euskadiko museoen urteko eskaintza zabala eta iraunkorra dela.


27. irudia: Museo eta bildumen jendeurreko irekitze modalitatea (balio absolutuak). 2008-2018




4.2. Museoak eta bildumak, urtean irekitako egun kopuruaren arabera

Grafikan ikus daitekeen bezala, museo gehienen irekitze modalitatea iraunkorra izateaz gain, sasoiko irekiera duten erakunde gutxiak ere urteko egun askotan izaten dituzte beraien ateak zabalik. Orokorrean, sasoi zehatz baten itxita egoteko arrazoiak hainbat izan daitezke; hala nola, museoa kokatuta dagoen erakundearen egutegiarekin bat egin behar izatea (EHU Medikuntza Historiaren Museoa), edo urteko sasoi batzuetan eguraldiak hala agindu dezakelako (Iruñeko Oppiduma).

28. irudia: Irekiera iraunkorra duten museoak eta bildumak urtean irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018




29. irudia: **Sasoiko irekiera duten museoak eta bildumak irekitako egun kopuruaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018**



4.3. Sarrera motak: tarifadun sarrerak eta doako sarrerak


2008ko krisiaren eraginez museoek ere beraien bideragarritasuna bermatu behar izan zuten; are gehiago, kontuan izan behar da, orduan, nabarmen jaitsi zirela kulturara orokorrean eta museoetara zehazki bideratutako aurrekontuak. Espainiako Kultura Ministerioaren babesa duen *Fundación Contemporánea* kultura behatokiaren arabera⁶, 2009tik 2015era %78ko jaitsiera metatua jasan zuten Espainiako kultur azpiegiturek. Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasuan ere, 2009 eta 2013 artean museoetara zuzendutako aurrekontuek jaitsiera ohargarria pairatu zuten, hain zuzen ere %53koa, azken urteetan errekonperazio zantzuak nabari diren arren. Hala ere, 2018ko aurrekontua 2008koa baino %44 txikiagoa izan zen.

30. irudia: **Museoak eta bildumak sarrera motaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018**



⁶ <http://www.fundacioncontemporanea.com/wp-content/uploads/2018/01/Observatorio-de-la-Cultura-2018.pdf>

31. irudia: **Tarifa osoa duten museoak eta bildumak sarrera-prezioaren arabera (balio absolutuak). 2008 eta 2018**



Arrazoi horiek medio, 2008 eta 2018 urteen artean asko jaitsi dira doako sarrera duten museoak; izan ere, guztien %40 izatetik %26 izatera pasatu dira. Dena dela, agerian utzi nahi dugu, gaur egun tarifadun sarrera duten erakundeen ia erdiek 2€ eta 5€ artean bakarrik kobratzen dutela, eta heren txiki batek bakarrik dituela 10€ baino gehiagoko sarrerak.

5. Bisitariak

Tipologia	Arkeologikoa	Arte Ederrak	Arte garai-kidea	Bestelakoak	Dekora-zio-ar-teak	Espezializa-tua	Etnografia eta Antropologia	Histori-koa	Mu-seo-Etxea	Natur zientziak eta Historia unibertsala	Orokorra	Tokikoa	Zientzia eta Teknologia
2008	49.161	319.086	1.117.344		8.215	98.722	71.760	51.470	23.819	30.137	333.519	48.362	205.805
Araba	18.182	43.005	104.197			22.705	16.090			14.289		7.307	
Gipuzkoa	30.979	365	61.779			14.165	37.158	5.492	23.819	15.848	333.519	6.863	177.195
Bizkaia		275.716	951.368		8.215	61.852	18.512	45.978				34.192	28.610
2010	41.277	267.598	1.057.417	12.425	15.282	190.158	85.889	65.741	40.245	26.673	304.443	69.762	195.979
Araba	6.419	50.021	101.000			80.330	14.336			10.859		2.489	
Gipuzkoa	26.176			12.425		42.193	24.248	7.093	40.245	15.814	304.443	46.895	174.896
Bizkaia	8.682	217.577	956.417		15.282	67.635	47.305	58.648				20.378	21.083
2012	40.765	338.992	1.116.610	12.204	8.874	247.493	94.293	54.499	40.548	20.081	438.473	56.003	229.770
Araba	5.812	23.371	102.506			50.766	11.250		10.215	8.981		2.098	
Gipuzkoa	22.008			12.204		113.184	28.719	7.209	30.333	11.100	425.268	32.204	203.859
Bizkaia	12.945	315.621	1.014.104		8.874	83.543	54.324	47.290			13.205	21.701	25.911

.../...

.../...


Tipologia	Arkeologikoa	Arte Ederrak	Arte garai-kidea	Bestelakoak	Dekora-zio-ar-teak	Espezializa-tua	Etnografia eta Antro-pologia	Histori-koa	Mu-seo-Etxea	Natur zientziak eta Historia unibertsala	Orokorra	Tokikoa	Zientzia eta Teknologia
2014	54.924	1.241.171	93.760		13.612	228.069	25.115	76.130	34.653	27.071	444.167	55.437	246.045
Araba	9.136	19.359	93.760		5.560	30.754	11.981			8.130			
Gipuzkoa	31.562					104.554	6.339	16.024	34.653	18.941	425.880	32.072	216.071
Bizkaia	14.226	1.221.812			8.052	92.761	6.795	60.106			18.287	23.365	29.974
2016	53.106	1.501.458	87.104	46.958	9.257	251.752	25.214	136.979	2.800	16.630	517.065	63.393	284.800
Araba	9.451	34.941	87.104	46.958		14.915	11.599			12.041			
Gipuzkoa	28.055					166.762	4.615	7.886	2.800	2.520	493.126	35.980	253.697
Bizkaia	15.600	1.466.517			9.257	70.075	9.000	129.093		2.069	23.939	27.413	31.103
2018	67.443	1.582.174	96.372	120.821		259.275	40.185	88.497	2.583	23.255	491.993	94.993	307.512
Araba	17.327	55.323	96.372	54.111		16.519	14.232			15.770			
Gipuzkoa	32.882			15.000		171.209	21.254	4.506	2.583	5.130	477.545	43.188	277.588
Bizkaia	17.234	1.526.851		51.710		71.547	4.699	83.991		2.355	14.448	51.805	29.924
GUZTIRA	306.676	5.250.479	3.568.607	192.408	55.240	1.275.469	342.456	473.316	144.648	143.847	2.529.660	387.950	1.469.911

5.1. Bisitari kopurua: orokorrean, lurralde historikoaren arabera eta museo-tipologiaren arabera


Orokorrean, museo eta bildumetako bisitari kopurua igo egin da azken 10 urteotan, hain zuzen ere, %35a; eta gorako ildo horretatik jarraitu dute hiru lurralde historikoek ere, Araba izanik bisitari kopuruan gutxien hazi dena (%19), eta Gipuzkoa gehien (%48), azken hau izan ez arren bisitari kopuru handiena jasotzen duena.

Argi dago museo eta bildumen artean Bilboko Guggenheim Museoak duen erakar-garritasun maila handia: aztertutako urte guztietako Bizkaiko bisitarien %67k eta Euskadiko %40ak bisitatzen dute museo hori. Atzetik Donostiako museo eta bildumak, bereziki Aquarium eta Eureka! Zientzia Museoa, batez besteko bisitari guztien %22arekin.

32. irudia: Euskadiko museo eta bildumen bisitari kopurua orokorrean eta Bilboko Guggenheim Museoko bisitariak (b.a. eta %). 2008-2018




33. irudia: **Bisitari kopurua lurralde historikoaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018**



Museo eta bildumetako bisitariak tipologiaren arabera aztertzen baditugu, berriz ere arte ederren eta arte garaikideko erakundeetan daukagu atzera-aurrera nabarmenena, eta arrazoia 1.2 ataleko lehenengo paragrafoan aipatutako bera da: Guggenheim Museoa arte garaikideko museo izatetik

arte ederretako tipologiaara aldatu zela 2014an. Aurretik esan bezala, museo hori da, diferentzia handiarekin, bisitari gehien jasotzen duena: bisitari guztien %40a jasotzen du Bilboko museoak. Hortik, 34. grafikan tipologia horietan ikusten diren saltoak.

34. irudia: **Bisitari kopurua museo eta bildumen tipologiaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018**




Era berean, esan behar da Museoen Zentroak jaso dituen datuak, bat datozela Basquetourrek⁷ Euskadiko ostatueta jasotakoekin, bietan ere joera gorakoa baita.

Museo-sareko bisitarien jatorriari buruzko datu zehatzik eduki gabe, grafika hauek aztertu ondoren, ezin dezakegu jakin museo eta bildumetako bisitarietatik zenbat diren bertakoak eta zenbat kanpoko bisitariak, ezta ostatu hartuta daudenetatik zenbatek bisitatu dituzten gure kultur azpiegiturak. Baina bai utzi dezakegu agerian museo-erakundeetako bisitarien igoera bat datorrela urtetik urtera Euskadik gero eta gehiago jasotzen duen turista kopuruarekin: %55 egin dute gora Euskadin ostatu daudenak.

⁷ Basquetour: Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko elkarte publikoa, Euskadiko turismoaren lehiakortasunerako estrategia sustatzeko eta ezartzeko sortu zena.

35. irudia: **Bisitari kopurua Basquetour eta Museoen Zentroko datuak alderatuz (balio absolutuak). 2008-2018⁸**



⁸ Iturriak: EUSTAT (hotelak, apartamentu turistikoak eta landetxeak) eta INE (kanpinak eta aterpetxeak).

5.2. Atzerriko bisitariak izan dituzten Euskadiko museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera eta tipologiaren arabera


Ondorengo tauletan ikus daitekeen bezala, badirudi azken urteetan Euskadik gero eta turista gehiago erakartzen duela. Horrela, igo egin dira museo-sareko zentroak bisitatzen dituzten atzerritarrek, hain zuzen ere %55. Gehiago igo diren arren gurean ostatz daudenak (%98ko igotze), gorakada bat dator Basquetourrek eskainitako datuekin. Horretara lagundu dute, gure ustez, Euskadik turismo-helmuga bezala eskaintzen dituen paisaiak, hiriak, kultura-azpiegiturak, ondarea, zerbitzuak eta gastronomiaz gain, 2011ko ETAREN behin betiko su-etenak, eta gure itsas-bazterrak *Game of Thrones* telesail ospetsuan azaltzea.

Turismoaren aferak gure lurraldean izaten ari den bestelako ondorioak alde batera utziz, argi dago arrakastak eragina izan duela inguruko museo eta bildumetan: datuak aztertuta, eta 2008ko datuak nahiko anormaloak izan arren, esan dezakegu bertan ostatu hartuta dauden atzerritarren ia %90ak (batez beste) bisitatu izan duela gutxienez Euskadiko museo edo bildumaren bat, eta Guggenheim Museoa bisitatzen duten guztien %65a atzerritarrek direla.


Atzerriko bisitarien azterketaren ondorioak bisitari orokorraren antzekoak dira. Arte Garaikideko museoak 2012ra arte eta arte ederretakoak hortik aurrera dira gehien bisitatutakoak, eta beraien artean dagoen zenbaki-dantzaren arrazoia behin eta berriz aipatzen ari garen bera da; baita Bizkaikoak izatea atzerritarrek gehien bisitatzen dituzten museoak ere. Guggenheim Museoaren atzetik doaz, baina oso

urrun, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Gipuzkoako tipologia orokorreko museo eta bildumak. Donostian, atzerritarrek gehien bisitatzen duten hiriburuan, bisita gehien duen zentroa Aquarium da (2018an %97ak), baina aipatu behar da ez San Telmo Museoa, eta ezta Eurekak ere ez dutela bete atzerriko bisitarien galdetegia.

36. irudia: **Atzerriko bisitari kopurua Basquetour eta Museoen Zentroko datuak alderatuz (balio absolutuak). 2008-2018**



37. irudia: **Atzerriko bisitari kopurua, lurralde historikoaren eta tipologiaren arabera (balio absolutuak). 2008-2018**



6. Aldi baterako erakusketak, hezkuntza-jarduerak eta argitalpenak

Aldi baterako erakusketak, hezkuntza-jarduerak eta argitalpenak diruz lagundu izan duten Euskadiko museo eta bildumentzako dirulaguntza lehiakorretarako aginduak 2008. urtetik aztertu ondoren, emandako diru-kopuruan atzera-aurreak egon direla esan genezake, baina 4. ata-lean aipatutako krisi ekonomikoaren ondorioak ez dira hainbeste igarri horien jardueretan; hots, proiektuak finantzatzeko diru-murrizketak egonagatik ere ez dira jarduera gutxiago egin. Esate baterako, krisi-garaiko urte gogorrenetan ere aldi baterako erakusketa kopurua igo egin zen, 2012tik 2016ra 2 erakusketa gutxiago egin baziren ere, 2008tik 2012ra 12 erakusketa gehiago antolatu ziren. Orokorrean, 2008 eta 2018 urteen arteko igoera aldi baterako erakusketetan %15koa izan da.

Joera bera eman da museoek eta bildumek egindako jardueretan⁹, non igoera nabarmena izan da: 148 ekintzatik 2008an 230ra 2018an, alegia, %55 gehiago. Argitalpenetan, aldiz, gorako joera ez da hain ohargarria izan aztertzen ari garen 6 urteak hartzen baditugu kontuan, %16koa izan baita, baina datuak 2012ra arte begiratzen baditugu, 4 urteko tartean 41 argitalpen gehiago egin ziren; hau da, nahiz eta krisi garaietan egon, erakunde publiko nahiz pribatuek %116 gehiago publikatu zuten 2008 eta 2012 artean. Argitalpenen moten artean, dibulgazio-materiala da urteetan zehar gehien argitaratu dena.

⁹ Hezkuntza-jarduerak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, ikastaroak, mintegiak, kontzertuak eta bestelako kultur jarduerak.

Argi eduki behar da nor-gehiagoko prozeduran dirulaguntza eska dezaketen museoak ez direla Eusko Jaurlaritzako museo en erroldan dauden guztiak. Izan ere, laguntza horietara aurkeztu ahal izateko behar-beharrezkoa da museo en erregistroan egotea (2011n sortu zena), eta 2018an 46 ziren egoera horretan zeudenak. Horietatik guztietatik, 12k ezin dute horrelako laguntzarik eskatu¹⁰.

Beraz, eta Kultura Zuzendaritzako Museo en Zentroko informazioaren arabera, krisialdian aurrekontu orokorra asko murriztu bazen ere, agindu bitartez banatutako kantitatea berdintsu mantendu da; are gehiago, 2012an bakarrik murriztu zen nabarmenki diru-ekarpena. Azken urteko joera, berriz, gorakoa izan da. Hala ere, finantziario-iturrietan aztertuko den bezala, zertxobait jaitsi da Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzak eskatzen dituen museo kopurua.

¹⁰ Lehiakortasun prozeduran onuradun izateko baztertuta geratzen dira: foru-titulartasunekoak, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila gobernu-organotako kide diren fundazioak, EAEko Administrazio Orokorraren partaidetza duten merkataritza-erakundeak, dirulaguntza izenduna jasotzen dutenak, eta partaidetza handiena banku-, finantza- edo kreditu-erakunde batena dutenak.

2008	2010	2012	2014	2016	2018
600.000 €	620.200 €	500.000 € ¹¹	600.000 €	600.000 €	700.000 €

Proiektu mota asko finantziatu izan dira, eta urtetik urtera diruz laguntzen dena berdintsua izaten jarraitzen du, baina orokorrean begiratzen badugu, diru kopuru gehiena erakusketak antolatzeko (bai iraunkorrak eta baita aldi baterakoak ere), eta hezkuntza- eta beste kultur-jarduerak egiteko eman izan da. Diru gutxien argitalpenetarako bideratu izan da. Dena den, azken 10 urteotan, batez beste, hainbat motatako eta diru kopuruko 40 proiektu inguru lagundu izan dira.

Esan bezala, orokorrean jarduera guztiek izan dute igoera, baina hizaldiek eta ikastaro, tailer edo mintegiek eduki duten gorako joera nabarmenduko genuke: 2008tik 2018ra %95 eta %70 igo dira horrelako jarduerak eskaintzen dituzten erakundeak. Hala ere, gehien ematen direnak hezkuntza-jarduerak dira, batez ere haurrei eta familiei zuzendutakoak. Aldiz, jaitsi den eskaintza bakarrik gutxiengo etnikoentzako jarduerak dira, jaitsiera oso ohargarria ez den arren (%21), eta horrek zer pentsa eman dezake.

¹¹ 2012an jasan zuten museo eta bildumek murrizketa nabarmenena, izan ere 2011an 700.000 € bideratu baitziren.


Argitalpenen harira, deigarria da gehiago argitaratzen zela krisi urteetan aztertutako azken bi urteetan baino. Datuak 2008tik aztertzen baditugu, igo egin da argitalpen kopurua (gidak izan ezik, jaitsi egin direla, eta material didaktikoa mantendu egin direla); baina 2012tik aurrera joera, orokorrean, beherakoa izan da, eta bereziki nabarmena dibulgazio materialen eta material didaktikoen kasuan, %33 eta %34 gutxiago publikatu baita. 2016tik aztertuta, errekupeazio zantzuak bakarrik aldizkako argitalpenetan (%16 gora) nabari dira.

6.1. Museo eta bildumetako aldi baterako erakusketak tipologiaren arabera

	Erakusketen balio absolutuak						Banaketa portzentuala ¹²					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
GUZTIRA	39	45	51	47	49	46						
Arkeologikoa	2	2	3	3	3	3	%50	%50	%75	%60	%60	%60
Arte Ederrak	6	5	5	4	5	6	%86	%100	%100	%67	83%	%100
Arte Garaikidea	3	2	2	1	1	1	%100	%100	%100	%100	%100	%100
Bestelakoak	0	1	1	0	1	3		%100	%100		%100	%100
Dekorazio-arteak	1	1	1	1	1	0	%100	%100	%100	%50	%100	
Espezializatua	7	10	13	12	12	9	%88	%67	%93	%80	%80	%64
Etnografia eta Antropologia	5	6	6	3	3	3	%56	%86	%75	%60	%60	%60
Historikoa	4	6	5	6	7	4	%80	%86	%83	%86	%100	%100
Museo-Etxea			1	1					%33	%100		
Natur zientziak eta Historia Unibertsala	2	2	3	2	2	1	%67	%50	%60	%50	%67	%25
Orokorra	1	2	4	5	4	4	%50	%67	%100	%100	%100	%100
Tokikoa	3	3	2	2	2	5	%60	%50	%40	%50	%50	%100
Zientzia eta Teknologia	5	5	5	7	8	7	%50	%100	%71	%100	%100	%78

¹² Museo eta bildumen %100rekin alderatuz.

38. irudia: Museo eta bildumetako aaldi baterako erakusketak tipologiaren arabera (%) 2008-2018




6.2. Museoak eta bildumak egindako hezkuntza-jardueren arabera

	Jardueren balore absolutuak						Banaketa portzentuala ¹³					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
GUZTIRA JARDUERAK	148	192	225	223	232	230						
Hezkuntza-Jarduerak	45	48	53	49	53	55	%78	%76	%82	%79	%87	%90
Haurrentzat	42	47	52	49	53	55	%72	75%	%80	%79	%87	%90
Adinekoentzat	23	31	32	32	35	32	%40	%49	%49	%52	%57	%52
Familientzat	26	32	35	38	46	45	%45	%51	%54	%61	%75	%74
Gutxiengo etnikoentzat	14	17	14	12	15	11	%24	%27	%22	%19	%25	%18
Desgaituentzat	20	25	26	25	22	29	%34	%40	%40	%40	%36	%48
Bestelakoak	14	12	22	22	23	24	%24	%19	%34	%35	%38	%39
Proiektzioak/ikus-entzunezkoak	18	26	31	31	28	29	%31	%41	%48	%50	%46	%48
Ikastaroak/Tailerrak/Mintegiak/Jardunaldiak	24	34	41	43	43	41	%41	%54	%63	%69	%70	%67
Hitzaldiak	21	31	34	37	40	41	%36	%49	%52	%60	%66	%67
Kontzertuak	13	20	22	22	26	23	%22	%32	%34	%35	%43	%38
Bestelako kultur jarduerak	27	33	44	42	42	43	%47	%52	%68	%68	%69	%70

¹³ Jarduerak egiten dituzten museo eta bildumen %100ekin alderatuz.


39. irudia: **Museoak eta bildumak egindako hezkuntza-jardueren arabera (%) 2008-2018**



6.3. Museoen eta bildumen argitalpenak


	Balore absolutuak						Banaketa portzentuala ¹⁴					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
GUZTIRA ARGITALPENAK	76	82	117	100	103	88						
Aldizkako argitalpenak	8	12	17	13	12	14	%14	%19	%26	%21	%20	%23
Katalogo zientifikoak	7	9	12	13	15	12	%12	%14	%18	%21	%25	%20
Material didaktikoa	17	15	26	20	21	17	%29	%24	%40	%32	%34	%28
Dibulgazio materiala	25	30	42	36	35	28	%43	%48	%65	%58	%57	%46
Gidak	19	16	20	18	20	17	%33	%25	%31	%29	%33	%28

40. irudia: **Argitalpenak guztira (balio absolutuak). 2008-2018**



¹⁴ Argitalpenak egin dituzten museo eta bildumen %100ekin alderatuz.

41. irudia: **Museoek eta bildumek egindako argitalpenen arabera (%) 2008-2018**



7. Langileak


	Balore absolutuak						%					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
GUZTIRA	638	682	726	690	639	699	%100	%100	%100	%100	%100	%100
SEXUA												
Gizonak	259	265	274	261	240	288	%42	%39	%38	%38	%38	%41
Emakumeak	354	416	452	429	399	411	%58	%61	%62	%62	%62	%59
LANALDIA												
Lanaldi osoa	371	455	473	452	413	418	%65	%67	%65	%66	%65	%60
Lanaldi erdia	202	226	252	238	226	281	%35	%33	%35	%34	%35	%40
LANBIDE-KATEGORIA												
Zuzendaria (bat erakunde bakoitzeko)	44	43	82	62	45	46	%7	%6	%11	%9	%7	%7
Langile espezializatuak (kontserbatzai- leak, berritzaileak, liburuzainak, gidak eta abar)	194	289	275	272	206	258	%30	%42	%38	%39	%32	%37
Administrazio-langileak (gerenteak, administrariak, laguntzaileak eta abar)	138	122	151	161	157	167	%22	%18	%21	%23	%25	%24
Mantentze-lanetako langileak eta garbitzaileak	66	66	74	64	63	81	%10	%10	%10	%9	%10	%12
Jagoleak eta segurtasun-langileak	46	64	63	71	59	72	%7	%9	%9	%10	%9	%10
Bestelakoa	150	98	81	60	109	75	%24	%14	%11	%9	%17	%11

7.1 Museo eta bildumak langile-kopuruaren arabera

Azken urteetan gorabehera nabarmenak egon dira Euskadiko museo eta bildumetako langile kopuruan. %14ko igoera egon zen 2008 eta 2012 urteen artean, baina 2016an 2008ko lanpostu berdinetara itzuli ziren. Azkeneko urteko datuen arabera, aldiz, badirudi egoera hoberantz doala.

Edonola ere, kontuan hartu behar da 2012an 65 museo zeudela Museoen Zentroko erroldan, eta horietako %100ak parte hartu zuela estatistiketan; 2008an erantzun zuten 58ekin alderatzen baditugu, 7 erakunde gehiago zeuden. Hurrengo urteetan, museo kopurua berriro jaitsi (65etik 62-61era), eta gutxi gorabehera berdintsu mantendu da 2018ra arte. Horregatik, esanguratsua iruditzen zaigu 2016tik aurrera nabari den errekupeazioa. Datu hori, errekupeazio ekonomikoaren adierazle izateaz gain, kultur azpiegitura hauek gero eta profesionalagoak direnaren seinale izan daiteke.

42. irudia: Museo eta bildumetako langile-kopurua (balio absolutuak). 2008-2018




7.2. Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lan-harremanaren arabera

Lan-harremani dagokionez, azken urteetan kultura erakunde batzuetako lan-hitzarmen prekarioei buruzko albisteak azaleratu dira nonahi, eta museoak ez dira salbuespen bat izan (batez ere zeharkako lanak egiten dituzten artean –segurtasun-zerbitzua, garbitzaileak, etab.- eta hezkuntza-jardueretako eta jendaurreko harretarako langileak, eta gidari/bitartekariak). Hala ere, 43. grafikari begiratzen badiogu, eta 2008 eta 2018 urteen arteko portzentajeak alderatzen baditugu, lanpostu ordaindua edo iraunkorra du-

ten langileak %10 baino gehiago igo dira azken 10 urteetan, eta ia kopuru berean jaitsialdi baterako lanpostuak. 45. irudia aztertzen badugu, ordea, %5 jaitsi da lanaldi osoa duten langileak. Horren harira, hurrengo urteetarako interesgarria izango litzateke galdetegian museoetako langile zuzenen eta lanaldi osoaren heren batean azpikontrataturakoen artean desberdintzea, arloko prekaritatea aztertu ahal izateko.

43. irudia: Museo eta bildumetako langileak lan-harremanaren arabera (%). 2008- 2018




7.3. Museo eta bildumetara atxikitako langileak, horien lanbide-kategoriaren arabera eta lanaldiaren arabera


Lanbide-kategoriak aztertzerakoan, eta 10 urtetako joera aintzat hartzen badugu, museo eta bildumetako langile espezializatuak eta administrazio-langileak plantilla osoaren erdia baino gehiago dira. Igoera nabarmena, berriz, langile espezializatuetan eman da, besteak beste, gida-

ri, liburuzain, eta zaharberritzaileetan. Portzentajeei begiratzen badiegu, hauek %6,5eko igoera izan dute. Beste lanbide-kategoria guztiak, zuzendariak izan ezik, bi puntutako gorabeherak jasan dituzte batez beste.

44. irudia: Museo eta bildumetako langileak lanbide-kategoriaren arabera (%). 2008-2018



45. irudia: Museo eta bildumetako langileak lanaldiaren arabera (%). 2008-2018




7.4. Museo eta bildumetako langileen banaketa, sexuaren arabera

Azkenik, aipatzekoa da emakumeek museoan arloan duten garrantzia. Espainiako Kultura Ministerioak 2018ra arte jasotako datuen arabera kultura arloan gizonezkoen presentzia %60koa da, 2011tik 1,5 puntu igo bada ere emakume kopurua. Jarduera ekonomikoei kasu egiten badiegu, badirudi, artxibo, museo eta liburutegietan emakumezkoen

presentzia gizonezkoena baino handiago dela, beraz, esan dezakegu ildo beretik doala Euskadiko museo eta bildumetako joera, izan ere, emakumeak, batez beste, %61a baitira. Zuzendaritza postuei dagokionez, 2018an, lehenengo aldiz, emakumezkoak gizonezkoak baino %13 gehiago izan ziren.

46. irudia: Museo eta bildumetako langileen banaketa sexuaren arabera (%). 2008-2018



8. Finantziazio-iturriak

Kapitulu honetako datuak analizatzen baditugu, txikiak izan dira aldaketak, baina nabarmendu nahi da guztien batez besteko %28k ez duela erantzun galdegai hau. Erantzuten dutenen artean, museo eta bilduma gehienak dira finantziazio-iturri bat baino gehiago dutenak, eta gutxienak diru-iturri bakarra dutenak, izan ekarpen pribatukoak edo arlo publikokoak. Joera hori 10 urteetan zehar mantendu da.

Gauza bera esan dezakegu finantziazio-iturri publikoak duten museo eta bildumei buruz. Orokorrean, diru-sarrera publikoa jasotzen dutenak ez dira murriztu, ezta krisiaren ondorioz ere; are gehiago, 2008tik %15 igo da Europar Batasunetik dirua jasotzen duen azpiegitura kopurua. Zenbakiei begiratzen badiegu, galdetegiko atal hau erantzun duten museo gehienek toki administrazioetako (udalak eta aldundiak) diru-sarrerak dituzte.

Portzentajeei begira, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu dituen erakunde kopurua %1 ere ez da jaitsi; balio absolutuen arabera, 2018an 2008an baino bi erakunde gutxiago izan dira dirulaguntza jaso dutenak. Aipatu behar da, Euskadiko Administrazio Orokorrak hiru motatako dirulaguntzak ematen dituela:


- Euskadiko museo eta bildumetarako dirulaguntzak: urtero Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aginduz, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan dauden zentroentzat bakarrik, eta nor-gehiagoko prozedura bitartez. Museo-erakundeek beraiek erabakitzen dute lehiara proiektuak aurkeztu edo ez.
- Izendunak: aurrekontu-legean daudenak laguntzen dira diruz Eusko Legebiltzarrak horrela onartu duelako.
- Zuzenak: Gobernuak erabakita, ohiz kanpoko kasuetan, eta betiere interes publikorako onuradunak direnean.

Finantziazio-iturriak	Balore absolutuak						%					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Diru-sarrera propioak + sektore publikoko diru-sarrerak	18	16	16	19	22	20	%31	%25	%25	%31	%36	%33
Diru-sarrera propioak + sektore publikoko diru-sarrerak + ekarpen pribatuak	18	20	22	21	18	19	%31	%32	%34	%34	%30	%31
Sektore publikoko diru-sarrerak bakarrik	7	5	4	6	5	7	%12	%8	%6	%10	%8	%11
Ekarpen pribatuak bakarrik	1				1	1	%2	%0	%0	%0	%2	%2
Ez dute erantzun	14	22	23	16	15	13	%24	%35	%35	%26	%25	%21

Finantziazio-iturri publikoak	Balore absolutuak						%					
	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Tokiko Administrazioak	32	36	33	36	37	37	%84	%90	%85	%84	%82	%80
Eusko Jaurlaritza	27	25	22	27	26	25	%71	%63	%56	%63	%58	%54
Europar Batasuna	0	1	1	4	2	7	%0	%3	%3	%9	%4	%15
Estatuko Administrazio Orokorra	3	3	4	5	3	4	%8	%8	%10	%12	%7	%9


8.1. Museoen eta bildumen finantziazio-iturriak

47. irudia: Museo eta bildumetako finantziazio-iturriak (%). 2008-2018



8.2. Finantzazio publikoa duten museo eta bildumak dirua ematen duten erakundearen arabera

48. irudia: Museo eta bildumetako finantzazio publikoa dirua ematen duten erakundearen arabera (%). 2008-2018




9. Funtsak

Museo-sareko funts egonkorretako datuen harira, guztizkoak begiratzen baditugu ez da aldaketa handiegirik nabari -eta kasu honetan gorako joera normalena dela esan dezakegu- baina gorabehera batzuk ageri dira tipologiak banan-banan aztertzen baditugu; agian nabarmenenak dira, jasan duten beherakadagatik tokikoak eta etnografia eta antropologia museoak. Zenbaki batzuk, arkeologikoenak adibidez, nahiko anomaloak dira, eta ziurrenik galdetegiak betetzerakoan akatsak egon dira edo atal hori

hutsik geratu da. Beste tipologia guztietako funtsetako gorabeherak sartu edo irten diren museo eta bildumengatik, eta tipologia batetik bestera pasatu diren erakundeengatik izan daitezke, baina datuak beti ez datoz bat tipologiaren arabera erroldan dauden museo kopuruarekin. Beraz, uste dugu, aurretik esan bezala, taula honetan dauden datuak ez direla osoak edo guztiz fidagarriak.

Tipologia	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2008	2010	2012	2014	2016	2018
Arkeologikoa	100.544	1.282	1.375	1.375	1.263	1.487	%12,3	%0,2	%0,2	%0,2	%0,1	%0,2
Arte Ederrak	19.117	19.680	19.945	21.525	22.691	29.411	%2,3	%2,6	%2,5	%2,7	%2,7	%3,4
Arte Garaikidea	4.134	2.262	2.337	2.252	3.057	2.322	%0,5	%0,3	%0,3	%0,3	%0,4	%0,3
Bestelakoak		6.000	1.360		30.553	42.901	%0,0	%0,8	%0,2	%0,0	%3,6	%4,9
Dekorazio-arteak	197	197	197	2.697	197		%0,0	%0,0	%0,0	%0,3	%0,0	%0,0
Espezializatua	35.652	44.429	56.004	74.127	51.363	50.982	%4,3	%5,9	%6,9	%9,2	%6,0	%5,8
Etnografia eta Antropologia	23.144	27.551	27.733	7.863	701	804	%2,8	%3,6	%3,4	%1,0	%0,1	%0,1
Historikoa	1.224	9.724	13.625	35.954	37.862	28.704	%0,1	%1,3	%1,7	%4,4	%4,4	%3,3
Museo-Etxea			14.294		132	132	%0,0	%0,0	%1,8	%0,0	%0,0	%0,0
Natur Zientziak eta Historia Unibertsala	563.342	569.188	581.438	575.664	612.237	612.856	%68,7	%75,3	%72,1	%71,2	%71,9	%70,2
Orokorra	33.064	38.566	55.425	58.522	64.742	67.228	%4,0	%5,1	%6,9	%7,2	%7,6	%7,7
Tokikoa	12.518	13.229	1.428	1.428	1.437	2.812	%1,5	%1,7	%0,2	%0,2	%0,2	%0,3
Zientzia eta Teknologia	27.030	24.279	31.571	26.995	25.545	33.499	%3,3	%3,2	%3,9	%3,3	%3,0	%3,8
GUZTIRA	819.966	756.387	806.732	808.402	851.780	873.138	%100	%100	%100	%100	%100	%100

49. irudia: Museo-funtsak, gaiaren arabera (%) 2008-2018



Txostena bere osotasunean aztertuta, esan dezakegu Euskadiko Autonomia Erkidegoko museo eta bildumen egoera 2018an 2008koa baino hobea dela. Krisi ekonomikoa eta aurrekontu murrizketak pairatu izanagatik ere, erakunde hauek egoerari aurre egiten jakin izan dute. Horrela, orokorrean, azpiegitura gehiago ditugu, eta gehienak urteetan mantendu eta jarraipena izan dute. Zerbitzu, jarduera eta ekipamendu-baliabide gehiago eta hobea eskaintzen dituzte gaur egun, eta urteko eskaintza zabala eta iraunkorra da. Ondorioz, nabarmen igo da Euskadiko museo eta bildumetako bisitari kopurua, bai orokorra, baita atzerritarra ere. Gainera, arloa gero eta profesionalagoa dela ere nabari da, non protagonista nagusiak langile espezializatuak diren.

Hauek dira 2008 eta 2018 arteko bilakaeraren datu aipagarrienak:

1. Orokorrean igo egin da Euskadiko museo-sisteman dauden museo eta bilduma kopurua, batez ere Gipuzkoan; hala ere, Araban 2018an 2008an baino lau museo gutxiago daude. Urte guzti hauetan mantendu da joera bera, Gipuzkoa izanik museo-erakunde gehien dituen lurraldea, bere hiriburua izan arren hiruetatik zentro gutxien dituen.
2. Museo eta bildumen tipologian aldaketa gutxi eman dira, eta adierazgarrienak dira arte garaikideko eta etnografia eta antropologiako museoetakoak, biek galdu baitute erakunde kopuruaren heren bat. Beste guztiek jasan dituzten aldaketak ez dira hain esanguratsuak, eta, orokorrean, estatistika-galdetegian tipologiaz aldatzearen ondorio dira. Euskal Autonomia Erkidegoan gehien errepikatzen den tipologia mota museo espezializatua eta zientzia eta teknologiako zentroak dira.
3. Aurretik aipatutako gorabehera horien adierazle dira azalera erabilgarrian egon diren aldeak. Arte garaikidekoak, adibidez, hiru izatetik bat izatera pasatu direnez, haien azalera erabilgarria ere txikiagotu egin da. Zientzia eta teknikako museoen kasuetan, berriz, museo kopurua jaitsi arren, azalera irabazi dute.
4. Museo eta bildumen ia %60 titulartasun publikokoak dira, eta joera hori berdintsu mantendu da azken hamar urteetan. Kudeaketari dagokionez, aldiz, pribatua da erakundeen erdietan baino gehiagotan.
5. Museo-erakundeetako zerbitzuak eta ekipamendu-baliabideak aztertzen baditugu, hamar urteotan egoerak hobera egin duela esan dezakegu inongo zalantzarik gabe. Ia zentro guztiek eskaintzen dituzte bisita gidatuak eta erakusketei buruzko informazioa, eta ia %85ak du ezinduentzako sarbidea. Igoera nabarmena jasan dute, era berean, hezkuntza-jardueretarako lekua duten azpiegiturek.
6. Euskadiko museoen urteko eskaintza zabala eta iraunkorra da, azpiegitura ia guztiak irekitze modalitate iraunkorra baitute; hau da, urteko hilabete guztietan daude zabalik. Hainbat arrazoi medio, aztertutako hamar urte hauetan museo-sisteman dauden museo bat edo bi bakarrik egon dira itxita. Are gehiago, %40k baino gehiago urtean 300 egun baino gehiago irekitzen dituzte ateak.
7. Sarrera doakoa izatea ez da ohikoena gure museo-sarean: 2008an %40a baziren ere, gaur egun museo eta bildumen heren bat ere ez da dohainik. Hala ere, esan dezakegu kasu askotan sarrera sinbolikoa dela, tarifadun erakundeen ia erdiek 2€ eta 5€ arteko sarrera baitute.

8. Hamar urtetako bilakaera aintzat hartzen badugu, %35 baino gehiago igo da Euskadiko museo eta bildumetako bisitari kopurua. Lurralde historiko guztietan igarri izan den arren bisitari igoera, nabarmentzekoa da Bilboko Guggenheim Museoak duen erakargarritasuna: Euskadiko museoak eta bildumak bisitatzen dituztenen %40ak ikusi du; atzetik Donostiako azpiegiturak, bisitarien %22arekin. Gehien bisitatutako tipologiak aztertzen baditugu, arte garaikideko eta arte ederretako museoen artean daude gorabehera esanguratsuenak; izan ere, 2012ra arte Guggenheim arte garaikideko museoen artean zegoen, egun, ordea, arte ederretan sartzen da.
 9. Atzerriko bisitari kopuruak oraindik ere igoera handiagoa izan du, hain zuzen ere, %55ekoa. Basquetourreko datuak ere aztertuz, esan dezakegu gurean ostatu hartuta dauden atzerritar gehienek (%90) bisitatu dutela gutxienez museo edo bilduma bat.
 10. 2008tik 2018ra, krisia medio, aldi baterako erakusketak eta argitalpenak %17 baino zertxobait gehiago igo dira, bitartean gorabeherak ere egon diren arren. Igoera adierazgarriagoa izan da hezkuntza eta bestelako jardueretan: 2018an 2008an baino 80 jarduera gehiago egin dira.
 11. Museo eta bildumetako langileen atalari begiratzeko badiogu, deigarria da 2012 eta 2016 arteko joera beherakoa izan zela, baina 2016tik aurrera, ordea, errekupeazio zantzuak nabari direla. Datu hori, errekupeazio ekonomikoaren adierazle izateaz gain, kultur azpiegitura hauek gero eta profesionalagoak direnaren seinale izan daiteke.
- Orokorrean, igo egin da museo-erakundeetako langile kopurua, eta baita lanpostu iraunkorra lortu dutenak ere. Lan motari dagokionez, langile espezializatuak eta administrazio-langileak museo eta bildumetako plantilla osoaren erdia baino gehiago dira.
12. Langileak genero aldetik aztertuta, nabarmentzeko datua da urte guzti hauetan horien %60 inguru emakumeak izan direla; are gehiago, zuzendaritza-postuak bakarrik aintzat hartuta, gaur egun, emakume-zuzendariak gizonezko-zuzendariak baino %13 gehiago dira.
 13. Museo eta bilduma gehienek, izan publikoak edo pribatuak, finantziario-iturri anitza dute; hain zuzen ere, bi diru-iturri izan dituztenak, batz bestea, %30a izan dira, eta beste hainbeste, hiru diru-iturri izan dituztenak. Hala ere, finantziario-iturri publikoak jasotzen dituzten museo-erakundeek kopuruak behera egin du, batez ere, toki administrazioetako dirulaguntzak jasotzen dituztenen datuak 2010etik aztertzen baditugu (%90k 2010ean eta %80k 2018an). Eusko Jaurlaritzaren laguntzei dagokionez, %1 ere ez da jaitsi Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzen duten museo kopurua.
 14. Museo eta bildumetako funtsak begiratuta, joera gorakoa izan da, hain justu ere %6koa.

2018ko estatistikan parte hartu zuten museoak eta bildumak

ARABA

Museoa / Bilduma	Udalerrria	Museo / bilduma mota
Arabako Arte Ederren Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak
La Hoyako Museoa	Guardia	Arkeologikoa
Natur Zientzietako Museoa	Vitoria-Gasteiz	Natur Zientziak eta Historia Unibertsala
Arabako Arma Museoa	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Arabako Elizabarrutiko Arte Sakratuaren Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Ederrak
Academia Vasca de Policía y Emergencias	Vitoria-Gasteiz	Espezializatua
Artium. Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa	Vitoria-Gasteiz	Arte Garaikidea
Iruñako Oppidumaren Museoa	Iruña Oka	Arkeologikoa
Museo Etnográfico de Artziniega	Artziniega	Etnografia eta Antropologia
Bibat Arkeologia Fournier Karta Museoa	Vitoria-Gasteiz	Bestelakoak

BIZKAIA

Museoa / Bilduma	Udalerrria	Museo / bilduma mota
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa	Abanto Zierbena	Zientzia eta Teknologia
Arrantzaleen Museoa	Bermeo	Tokikoa
Bilboko Euskal Museoa	Bilbao	Historikoa
Bilboko Arte Ederren Museoa	Bilbao	Arte Ederrak
Bizkaiko Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa	Bilbao	Arte Ederrak

.../...

.../...

Museoa / Bilduma	Udalerria	Museo / bilduma mota
Guggenheim Bilbao Museoa	Bilbao	Arte Ederrak
Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa	Bilbao	Espezializatua
Euskal Abertzaletasunaren Museoa	Bilbao	Historikoa
Durangoko Arte eta Historia Museoa	Durango	Arte Ederrak
Euskal Herria Museoa	Gernika-Lumo	Orokorra
Gernikako Bakearen Museoa	Gernika-Lumo	Bestelakoak
Medikuntza Historiaren Euskal Museoa	Leioa	Zientzia eta Teknologia
Simón Bolívar Museoa	Ziortza-Bolibar	Historikoa
El Pobaleko Burdinola	Muskiz	Tokikoa
Orozkoko Museoa	Orozko	Etnografia eta Antropologia
Rialia-Industriaren Museoa	Portugalete	Zientzia eta Teknologia
Boinas La Encartada Museoa	Balmaseda	Tokikoa
Bizkaiko Arkeologi Museoa	Bilbao	Arkeologikoa
Hontza Museoa. Durangaldeko Natur Zientzien Museoa	Mañaria	Natur zientziak eta Historia unibertsala
Margarita María Museoa. Berriztik mundura	Berriz	Espezializatua
Bilboko Artelan Berreginen Museoa	Bilbao	Espezializatua

GIPUZKOA

Museoa / Bilduma	Udalerrria	Museo / bilduma mota
Euskal Itsas Museoa	Donostia / San Sebastián	Espezializatua
Lenbur Museo Lurralde	Legazpi	Zientzia eta Teknologia
Igartzako Monumentu Multzoa	Beasain	Etnografia eta Antropologia
Zumalakarregi Museoa	Ormaiztegi	Historikoa
Photomuseum	Zarautz	Espezializatua
Zarauzko Arte eta Historia Museoa	Zarautz	Arkeologikoa
Zerain Paisaia Kulturala	Zerain	Etnografia eta Antropologia
Ekainberri	Zestoa	Tokikoa
Sagardoetxea, Sagardoaren Museoa	Astigarraga	Etnografia eta Antropologia
Burnibidearen Euskal Museoa	Azpeitia	Zientzia eta Teknologia
Armagintzaren Museoa	Eibar	Zientzia eta Teknologia
Makina Erremintaren Museoa	Elgoibar	Zientzia eta Teknologia
Ibarraundi Museoa	Eskoriatza	Orokorra
Igartubeiti Baserri Museoa	Ezkio-Itsaso	Tokikoa
Oiasso Erromatar Museoa	Irun	Arkeologikoa
Gatz Museoa	Leintz-Gatzaga	Espezializatua
San Telmo Museoa	Donostia / San Sebastián	Orokorra
Aquarium	Donostia / San Sebastián	Orokorra
Museum Cemento Rezola	Donostia / San Sebastián	Espezializatua
Eureka! Zientzia Museoa	Donostia / San Sebastián	Zientzia eta Teknologia

.../...

.../...

Museoa / Bilduma	Udalerria	Museo / bilduma mota
TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	Tolosa	Bestelakoak
Cristóbal Balenciaga Museoa	Getaria	Espezializatua
Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa	Oiartzun	Natur Zientziak eta Historia unibertsala
Albaola, Itsas Kultur Faktoria	Pasaia	Espezializatua
Mater Arrantza ontzi Museoa - Arrantzaren interpretazio zentroa	Pasaia	Espezializatua
Soinuenea. Herri Musikaren Txokoa	Oiartzun	Espezializatua
Lili Jauregia	Zestoa	Museo-Etxea
Laboratorium Museoa	Bergara	Zientzia eta Teknologia
Aikur-Erleen Museoa	Urretxu	Natur Zientziak eta Historia unibertsala
EHUko Hezkuntzaren Museoa	Donostia / San Sebastián	Espezializatua

Aurreko urtetako estatistiketan parte hartu izan zuten beste museo batzuk dira, besteak beste, Aire Libreko Museo Etnografikoa, Euskal Buztingintza Museoa, Gastronomiaren Euskal Museoa, Oiongo Museo Etnografikoa, Zuloaga Museoa, Gorrotxategi Museoa, Chillida-Leku, Munduko

Tximeleten Museoa, Aste Santuko Pausoen Museoa edo Bilboko Zezen Plazako Zezenketa Museoa. Gure zerrendan ez egoteak ez du esan nahi gaur egun existitzen ez direla, EMSIMEko erroldan, eta ondorioz, gure sisteman, jadanik ez daudela baizik.